

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bilboko Udala**

Iragarkia, Bilboko Udalarena, Adimen-Desgaitasuna duten Menpekoen 4 plaza, derrigorrezkoa ez den 1. hizkuntza-eskakizunekoak, lehiaketa-oposizioaren bidez eta sarbide librean betetzeko hautaketa-prozesuaren oinarriak onartzeari eta hautaketa-prozesuko deialdiari buruzkoa.

Kultura eta Gobernantza Saileko zinegotzi ordezkariak, alkatearen 2019ko ekainaren 15eko ebazpenaren bidez eta Gobernu Batzordeak 2019ko ekainaren 15ean hartutako erabakiaren bidez beraren gain utzitako ahalmenak erabilita, 2022ko maiatzaren 2an ebazpena eman zuen, hau xedatuz:

«*Lehenengoa:* Tokiko Gobernua Modernizatzeko Neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeari erantsitako 127. artikuluan eta Gobernu Batzordeak 2019ko ekainaren 15ean hartutako erabakian ezarritakoarekin bat etorrita, menpekoen 4 plaza jabetzan betetzeko hautaketa-prozesuaren oinarriak onartzen dira eta hautaketa-prozesu hori deitzen da. Hauek dira plazen ezaugarriak: adimen-desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazen txanda independentea, talde profesionalen (TP) sailkapen taldea, derrigorrezkoa ez den 1. hizkuntza-eskakizuna, administrazio orokorreko eskala, menpekoen azpieskala. Plazak %33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten, adimen-desgaitasuneko diagnostikoa duten eta/edo mugako adimena duten pertsonentzat dira, eta TP taldeko ordainsariak dituzte. Plaza horiek 2019, 2020 eta 2021. urteetako enplegu publikoaren eskaintzakoak dira, eta sarbide libreaz eta lehiaketa-oposizioz beteko dira, eta ebazpen honen eranskin gisa ageri dira.

Bigarrena: Ebazpen honen kontra berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, hilabete epean, ebazpena eman duen organoaren beraren aurrean, edo, bestela, zuzenean aurkatu daiteke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabete epean, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, hala ezarrita baitago 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluetan (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearena), eta 29/1998 Legearen 46. artikuluan (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena)».

Bilbon, 2022ko maiatzaren 2an. — Giza Baliabideak Antolatze eta Kudeatzeko Zuzendaria

**ERANSKINA****MENPEKOEN 4 PLAZA (ADIMEN-DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO
PLAZEN TXANDA INDEPENDENTEAN) JABETZAN BETETZEKO
DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK****Lehenegoa. — Eskainitako plazak**

Oinarri espezifiko hauek eta indarrean dauden oinarri orokorrek arautuko dute menpekoen 4 plaza sarbide librearen sistemaren bidez eta lehiaketa-oposizioaren bidez deitzen dituen hautaketa-prozesu hau. Hauek dira plazen ezaugarriak: adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako txanda independentea, talde profesionalen (TP) sailkapen taldea, nahitaezkoa ez den 1. hizkuntza-eskakizuna, administrazio orokorreko eskala, menpekoen azpieskala, %33ko edo gehiagoko desgaitasuna, adimen-desgaitasuneko diagnostikoa eta/edo mugako adimena duten pertsonentzat, eta TP taldearen ordainsariak. Lanpostuak 2019, 2020 eta 2021eko lan-eskaintza publikokoak dira.

Plazaren funtzio eta eginkizun esanguratsuenak hauek dira, besteak beste:

- Udal zentro eta/edo dependentzien mantentze, garbiketa edo higiene lanetan antzematen diren akatsak jakinaraztea.
- Dokumentazioa eta gutunak biltzea, sailkatzea, eramatea eta banatzea.
- Fotokopiak egitea, taldeetan, ikastaroetan eta abarrekoetan materiala banatzea, zentroko aretoak jarduerak egiteko prestatzea, eta kolektibo bulegoak erakustea.
- Bulegoko materiala bildu eta banatzea eta eraikinetik kanpo enkarguak egitea.
- Zentroko arduradunari laguntza ematea zenbait laguntza edo kolaborazio lanetan, besteak beste: artxibatzea, kontaktak egitea, lokalak batzarretarako prestatzea, altzari arinak lekuz aldatzea eta abar. Lan horiek ez dira modu eksklusiboan egingo, errazak izango dira eta bitarteko egokiak eskainiko dira.
- Lanposturako eskatutako kualifikazioarekin bat etorrita ematen zaizkion zereginak betetzea.
- Gauza bakoitza non dagoen adieraztea.

Bilboko Udaleko plantillako plazak jabetzan betetzeko orduan, deialdiaren oinarri orokorretako hamaikagarren oinarrian ezarritakoaren arabera (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2020ko uztailaren 10a, 131. zk.), deialdian eskaintzen den plaza kopurua handitu ahal izango da, deialdi honen ostean onartutako enplegu publikoko eskaintzetan sartzen diren plaza hutsen arabera. Plaza kopuruaren gehikuntza hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, alkate-udalburuaren ebazpenaren bidez; adierazi beharko da, ostera, zenbat diren horien artean hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa duten plazak, eta, betiere, gainditu duten pertsonen zerrenda argitaratu aurretik xedatu beharko da gehikuntzari buruz, oposizio- eta lehiaketa-faseak amaitu ostean.

Bigarrena. — Baldintza espezifikoak

Hautaketa-prozesu honetan parte hartzeko, baldintza hauek bete behar dira:

- a) Talde profesional bat denez gero, ez da titulaziorik exijitzen.
- b) Espainiako nazionalitatea edukitzea, oinarri orokorretako bosgarren oinarriaren lehen puntuan ezarritako moduan (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2020ko uztailaren 10ekoa, 131. zk.).
- c) Gaitasuna: betekizun hau bete behar da: %33ko desgaitasuna edo handiagoa, adimen-desgaitasuneko diagnostikoa eta/edo mugako adimena izatea.
Betiere, puntu honen inguruko erreklamazioei eta errekurtsioei buruzko txostenak egin beharko ditu organo eskudunak.
- d) Eginkizunak betetzeko behar den gaitasun funtzionala izatea.
- e) Adina: hamasei (16) urte beteta izatea eta derrigorrezko erretiro-adinetik gora ez izatea.
- f) Gaikuntza: administrazio publikoen edo autonomia-erkidegoetako organismo konstituzionaletan edo estatutarioen zerbitzuetatik diziplina-espedientearen bi-



tartez baztertua ez izatea, eta epailearen erabakiz kargu edo enplegu publikoak burutzeko, ezta funtzionarioa izateko ere, gaitasunik gabe utzia ez izatea.

Beste estatu bateko herritarrei dagokienez, gaitasunik gabe utzita edo antzeko egoeran ez egotea, ezta ere bere estatuan enplegu publikoan sartzea eragozten duen diziplina-zigorrik edo baliokiderik izatea.

- g) Ez egotea desgaitasun edo bateraezintasuneko lege-kausaren batean sarturik, administrazio publikoen zerbitzura dauden langileentzat bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araubidearen arabera; hala ere, kargu publikoan jardun edo jarduera pribatu bateraezina egiten dutenek ez dute izango eragozpenik legezko arau horiek aipatzen duten aukera egiteko.
- h) Ez izatea epai irmo bidez kondenatua sexu-askatasunaren eta sexu-kaltega-betasunaren kontrako delituren batengatik, 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua arabera (1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa eta Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea partez aldatzekoa).
- i) Tasak: Azterketa-eskubideagatik indarrean dagoen tasa ordainduta izatea eskabideak aurkezteko epearen barruan. Tasa hori dokumentuak egiteko eta emateko zerbitzuaren tasak arautzen dituen Bilboko Udalaren Ordenantza Fiskalean dago ezarrita.

Hautaketa-prozesuetan parte hartu nahi dutenek eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehenago bete beharko dituzte baldintza guztiak. Era berean, gainerako baldintza guztiak bete behar dira hautaketa-prozesuan zehar izendapena egin arte, gaitasun funtzionalari buruz d) apartatuan ezarritakoa izan ezik; kasu horretan, udalaren zerbitzu medikoek egiaztatu behar dute funtzionario izendatu baino lehen.

Halere, epaimahaiak prozeduraren edozein unetan jakiten badu hautagairen batek ez dituela deialdiko baldintza guztiak betetzen, hautagaia baztertuta utziko du, entzualdia egin ondoren, eta egun berean horren berri emango dio hautaketa-prozesurako deialdia egin duen agintariari.

Hirugarrena. — Azterketa-eskubideak

Sei eurokoak (6,00 euro) izango dira.

Kopuru hori ordainketa-pasabidearen bitartez ordaindu daiteke. Pasabide horretara sartzeko, eskabide-orria bete behar da web-orri honetan: <https://ope.bilbao.eus>. Era berean, beste modu honetan ere ordain daitezke azterketa-tasak: barra-kodea duen ordainagiriaren edo eskabidearen kopia jaitsi eta dokumentu horretan adierazita dauden Bilboko Udalaren entitate kolaboratzaileen edozein bulegotan aurkeztuta.

Halaber, telematikoak ez diren bitartekoen bidez aurkeztutako eskabideen kasuan, tasaren ordainketa Bilboko Udaleko Giza Baliabideak Antolatze eta Kudeatzeko Zuzendaritzara (Venezuela plaza 2-5. solairua, 48001 Bilbo) bidalitako posta bidezko igorpenaz egin ahalko da. Posta bidezko igorpenaren egiaztatzea aurkeztu beharko da oinarri hauetan erantsitako eskabide ofizialaren ereduarekin batera.

Azterketa-eskubideak beti ordaindu behar dira eskabideak aurkezteko epearen barruan.

Laugarrena. — Eskabideak

Eskabideak Internet bidez edota paperean aurkeztu ahal izango dira.

Eskabide telematikoak eredu ofizialaren arabera aurkeztu beharko dira; web-orrialde honetan eskuratu daitezke: <https://ope.bilbao.eus>.

Eskabide horiek prozedura elektronikoaren bidez aurkeztuko dira, helbide elektroniko horretan ezarrita dagoen moduan. Hautaketa-prozesu honetan parte hartzeko eskabidean adierazi beharko da betetzen direla betekizunak, eta, halaber, adierazi beharko da zer merezimendu alegatzen diren; zerrenda batean aipatu eta identifikatu behar dira behar bestean. Ez da aurkeztu behar ziurtagirien kopiarik eskabidearekin batera; izan ere, epaimahaiak edo Kultura eta Gobernantza Saileko Giza Baliabideak Antolatze eta



Kudeatzeko Zuzendaritzak eskatzen dituenean egiaztatu beharko dira parte hartzeko baldintzak eta aipatutako merezimenduak.

Era berean, Kultura eta Gobernantza Saileko Giza Baliabideak Antolatzeko eta Kudeatzeko Zuzendaritzak erregistroko bulego txiki bat jarriko du Aznar eraikinean (Venezuela plaza 2, 5. solairua), ordenagailuekin eta beste baliabide tekniko batzuekin, nahi dutenek eskabidea aurkezteko erabil ditzaten. Interesdunei aholkuak eta laguntza eman-go zaizkie eskabidea behar bezala betetzeko.

Paperezko formatuan aurkezten diren eskabideak 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan aurkeztu ahal izango dira (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena). Horretarako, eskabide-eredu ofiziala erantsi zaie oinarri hauei, eta azterketa-tasa ordaintzeko posta bidezko igorpenarekin batera aurkeztu beharko da.

Eskabidea, tasak ordaindu izanaren agiriarekin batera, hogeita (20) egun baliodunen epean aurkeztu behar da, deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Horri dagokionez, igandeak eta jaiegunak ez ezik, larunbatak ere ez dira egun baliodunak izango.

Era berean, hautagaiek oinarri hauetan eskatzen diren baldintzak onartzen dituzte eta, aldi berean, eskabidea formalizatzean baimena eman dezakete beharrezko agiriaren kontsulta telematikoa egiteko: NAN, titulu akademiko ofizialak, hizkuntza-eskakizunak, etab. Baimena emanez gero, ez da beharrezkoa izango agiri horiek aurkeztea, betiere informatikazko elkarreragingarritasun bidez kontsultatu ahal izanez gero.

Hautaketa-prozesu honetako emaitzekin lan-poltsa bat eratuko da, Bilboko Udaleko lan-poltsak kudeatzeko indarreko irizpideen arabera kudeatuko dena. Irizpide horiek lan-poltsak eratzen direnean indarrean daudenak izango dira, sindikatuarekin aldez aurretik negoziatuta. Lan-poltsa hori izaera publikoko beste administrazio edo erakunde batzuen eskura jarri ahal izango da, aipatutako erabakian adierazitako irizpideen arabera.

Oinarri orokorretako hamaikagarren oinarria (oinarri orokorrak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren: 131. zk., 2020ko uztailaren 10ekoa) lan-poltsak eratzeari buruzkoa da, eta bertan ezarritakoaren arabera, hautagaiek, oinarri hauek xede dituzten hautaketa-prozesuak egin osterako, adierazi beharko dute, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean, baimenik ematen duten ala ez beren datu hauek administrazio publikoko beste erakunde batzuei lagatzeko: izen-abizenak, NAN zenbakia, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza-maila. Datu horiek lagatzearen helburu bakarra izango da erakunde horiek lan-eskaintzak legezko baldintzetan egin ahal izatea. Datuak eman ahal izateko baimena beren-beregi ematen ez bada, ulertuko da ez dutela baimenik eman.

Bosgarrena. — Epaimahaia

Indarrean dauden legeetan ezarritakoaren arabera eta Bilboko Udalaren plantillako plazak jabetzan betetzeko oinarri orokorretan ezarritakoaren arabera, Epaimahaian burua, idazkari bat eta gutxienez hiru kide izango dira. Horien artean Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako pertsona bat egongo da derrigorrez.

Epaimahaia osatzen dutenak, gehienbat, teknikariak izango dira eta espezialitatearen printzipioan oinarritutakoa izango da; hortaz, kide guztiek deialdian parte hartzeko eskatu den titulu edo maila akademiko berbera edo goragokoa eduki behar dute eta hautaketa-probetako jakintza-arlo bereko titulazioa izan behar dute epaimahaiaren kideen erdiek gutxienez. Epaimahaiaren osaera orekatua izan beharko da, eta sexu bakoitzaren ordezkaritza %40koa izango da gutxienez, hori egoki ez dela justifikatzen ez bada, behintzat.

Epaimahaian euskararen jakite-maila neurtzeko proba egiteko izendatutako kide bat egongo da, eta euskararen jakite-maila neurtzeko bakarrik izango da, eta lehen aipatutako kideei erantsiko zaie.

**Seigarrena. — Hautaketa-prozedura**

Hautagaiak, beraz, lehiaketa-oposizioaren bidezko sarbide libreko sistemaz aukeratu dira. Oposizio-fasean hiru ariketa egingo dira, eta lehiaketa-fasean merezimenduak baloratuko dira. Oposizio-fasea egingo da lehenengo. Prozesua osatzeko, praktikaldia egingo da.

Oinarri orokorretan ezarritakoa gorabehera, deialdi honetako behin betiko onarpenaren eta bazterketaren iragarkiaren ondorengo iragarki guztiak Udalaren iragarki-taulan eta <https://ope.bilbao.eus> web-orrian argitaratuko dira.

A) Oposizio-fasea

Oposizio-fasean hiru (3) ariketa egingo dira: lehenengo biak derrigorrezkoak eta baztertzaileak, eta hirugarrena, euskara jakitearena, borondatezkoa eta ez-baztertzailea.

Lehenengo ariketa (10 puntu)

Derrigorrezkoa eta baztertzailea. Gehienez ere 90 minutuz, galdetegi bati erantzun beharko zaio, idatziz. Galdetegiak test motako 30 galdera izango ditu eta epaimahaiak hautatuko ditu. Galdera horietatik 25 ebaluatzeko izango dira eta beste 5 erreserbakoak izango dira (lehenengo 25 galderetako bat baztertuko balitz). Galdera bakoitzak hiru erantzun izango ditu aukeran, eta haietako bakarra izango da zuzena.

Erantzun zuzenak 0,40 puntu balioko ditu, eta ez da penalizaziorik ezarriko erantzun okerrak emateagatik, erantzun bat baino gehiago emateagatik edo erantzunik ez emateagatik.

Ariketa honi 0 eta 10,00 puntu arteko kalifikazioa emango zaio, eta gutxienez 5,00 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak prozesutik kanpo geratuko dira.

Bigarren ariketa (10 puntu)

Derrigorrezkoa eta baztertzailea. Praktikoa izango da, eta oinarritzko makinak erabiltzen dakiela frogatzean datza (fotokopiagailuak, plastifikagailuak, koadernagailuak, eskannerak eta inprimagailuak), I. eranskin gisa dagoen gai-zerrendako 2. zatiarekin lotuta. Modu berean, postuaren berezko funtzioak sartuko dira (oinarrizko informatika, enkar-guak, paketeak erabiltzea, ...). Funtzio horiek lehenengo oinarrian aipatzen dira. Epaimahaiak ariketa hasi baino lehen zehaztuko du ariketa.

Erabiliko diren makinaren mota eta modeloa hauek izango dira:

- Toshiba e-studio 2505 AC modeloa (funtzio asko: fotokopiagailua, eskannerak eta inprimagailua).
- Grapagailua: Casco M3 modeloa.
- Koadernagailua: Neodal I-BIND20 modeloa (14 mm-ko txirularen erabilera).

Ariketa egiteko adierazi diren makina mota eta modeloa gutxi gorabeherakoak dira. Une horretan erabilgarri ez badago, modelo antzekoa edo baliokidea erabiliko dira, eta horren berri emango da udalaren web-orrian.

Ariketa honi 0 eta 10,00 puntu arteko kalifikazioa emango zaio, eta gutxienez 5,00 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak prozesutik kanpo geratuko dira.

Hirugarren ariketa (euskara proba): boluntarioa eta ez baztertzailea. Euskarako 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu beharko da, epaimahaiak erabakitako eran. Horretarako, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako jarraibideak erabiliko dira, halaxe ezartzen baitu Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 99.1 artikulua.

Ez dute ariketa hau egin beharko ariketa baino lehen HAEEak 1. hizkuntza-eskakizunerako emandako ziurtagiria daukaten pertsonak.

Halaber, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babespean hizkuntza-eskakizunak egiaztatu nahi dituztenek ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.



Ariketa hau 1,50 punturekin kalifikatuko da euskara 1. hizkuntza-eskakizunaren mailan dakitenen kasuan. Deialdi honen lehenengo eta/edo bigarren ariketak euskaraz egin eta gainditu dituzten pertsonak ez dute hirugarren ariketa hau egin beharko, eta puntuazioa eskuratuko dute.

Oposizio-faseko gehieneko puntuazioa

Fase honetan, euskarazko azterketa kontuan hartu gabe, gehienez 20,00 puntu ateratahal izango dira.

B) *Lehiaketa-fasea*

Oposizio-fasea amaitutakoan hasiko da lehiaketa-fasea, eta aipatutako fasea gainditu duten pertsonak parte hartuko dute. Fase honetan, eskabideak aurkezteko epean aurkeztutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira; epaimahaiak edo Giza Baliabideak Antolatze eta Kudeatzeko Zuzendaritzak Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian (<https://ope.bilbao.eus>) argitaratutako iragarkian horretarako emandako epean egiaztatu beharko dira, behar bezala. Oinarri hauetan azaldutakoarekin bat etorrira baloratuko dira merezimenduak. Ez da bestelako merezimendurik baloratuko. Hautaketa-probarako ize-na emateko eskabidean alegatu ez den merezimendurik ez da baloratuko, espediente pertsonalean ageri badira ere edo dokumentazio hori Bilboko Udalaren esku badago ere. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunera arteko merezimenduak bakarrik baloratuko dira.

1. Antzinasuna

Administrazio Publikoan menpekoen plazetan, TP taldean, emandako zerbitzuak baloratuko dira. Gehienez 9,00 puntu emango dira, honela banatuta: 3,00 puntu urteko edo 6 hilabetetik gorako zati bakoitzeko, eskabideak aurkezteko epea amaitu den egunera arte zenbatuak.

Lehiaketa-faseko gehieneko puntuazioa

Lehiaketa-fasean, gehienez ere, 9,00 puntu lortu ahal izango dira.

Hautagaien azken puntuazioa hautaketa-prozesuan lortutako puntuazio guztien batura izango da.

Oposizio-azterketak amaitu eta lehiaketako merezimenduak baloratu ondoren, epaimahaiak sailkapenaren hurrenkera ezarriko du, handitik txikira, hautaketa-prozesuaren fase biak batuta.

Zazpigarrena. — Oposizio- eta lehiaketa-faseen behin betiko kalifikazioa

Hautaketa-prozesua osatzen duten ariketen edo/eta merezimenduen kalifikazioa bukatzen denean, Epaimahaiak hautatuen zerrenda argitaratuko du. Oposizio-fasea gainditu duten pertsonak lortutako puntuazioa eta, egoki bada, lehiaketa-faseko merezimenduen balorazioa batuta ezarriko da puntuazio-hurrenkera. Pertsona horien kopurua ez da izango eskainitako plazen kopurua baino handiagoa (Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6/1989 Legearen 32. artikulua). Epaimahaiak alkate-udalburuari bidaliko dio zerrenda hori eta izendapenerako proposamena egingo du. Era berean, azken saioko akta bidaliko dio, fase biak gainditu baina plazarik lortu ez dutenen zerrendarekin (hori ere, puntuazioaren arabera). Zerrenda hori plaza lortu dutenen arteko norbait plazaz jabetuko ez balitz erabiliko litzateke bakar-bakarrik, ez beste ezertarako. Zerrenda honetan egoteak ez du beste inolako eskubiderik ematen, oinarri orokorretako hamargarren oinarrian ezarritakoarekin bat etorrira.

Lan-poltsak kudeatzeko udal araudiarekin bat etorrira, oposizio-fasea eta lehiaketa-fasea kalifikatu ondoren, hautaketa-prozesua osorik gainditu ez baina gutxienez ariketa bat gainditu duten pertsonak dei egingo zaie, Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian (<https://ope.bilbao.eus>) iragarkia argitaratuz, lan-poltsan sartzeko betekizunak eta merezimenduak egiaztatu ditzaten. Behin agiri guztiak egiaztatuta, zerrenda argitaratuko da leku berberetan.

**Zortzigarrena. — Agiriak aurkeztea**

Oinarri orokorren hamabigarrenean ezarritakoaren arabera aurkeztuko dira.

Funtzionario izateko proposatutako hautagaiak 20 eguneko epea dute, gainditu dutenen zerrenda argitaratzen denetik hasita, Giza Baliabideak Antolatze eta Kudeatzeko Zuzendaritzan (Venezuela plaza 2, 5. solairua) hautaketa-prozesuan parte hartzeko hamabigarren oinarrian eskatzen diren ziurtagiriak aurkezteko.

Hautagaiak, edozein administrazio publikotan karrerako funtzionario izanez gero, ez dituzte aurkeztu beharko lehenagoko izendapenerako aurkeztuta dituzten ziurtagiriak; kasu horietan, zein administrazio publikotan diren funtzionario, hark egindako ziurtagiria aurkeztu behar dute, funtzionario izatea egiaztatuz, eta orobat beren zerbitzu orrietan ageri diren gainerako gorabeherak egiaztatuz.

Adierazitako epearen barruan, ezinbesteko kasuetan izan ezik, deialdian parte hartzeko eskatzen diren betebeharrak eta baldintzak betetzen direla ziurtatzen duten agiriak aurkeztu ez dituzten pertsonak, edo agiriak aztertuta edo azterketa medikoaren ondorioz ikusten bada baldintzetakoren bat ez dutela betetzen, deialditik kanpo geratuko dira eta beraz, ezin izango dira izendatu. Hori gertatuz gero, baliorik gabe geratuko dira ordura arte egindako jarduketa guztiak eta, gainera, gerta liteke erantzukizunen bat izatea hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean okerreko datuak azaltzeagatik. Alkate-udalburuak, kasu horretan, hautaketa prozesuko ariketa guztiak gainditu dituztenen aldeko izendapen proposamena egingo du, baliogabetze horren ondorioz eskaintako plaza kopurua berdintzeko beste hautagaien alde, hain zuzen.

Bederatzigarrena. — Praktikaldia eta izendapena

Hautaketa-prozesuaren beste fase bat izango da praktikaldia. Bertan izango dira lehiaketa-oposizioaren fasean puntuaziorik onena lortu duten hautagaiak; ezin da egon deialdiko plaza baino hautagai gehiago. Fase hori plazak bete behar diren sailean egingo da, gehienez ere sei hilabetez. Datak sasoiz iragarriko dira.

Ebaluazio-prozedurak jarraipena izango du praktikaldian zehar, eta bakarrik etengo da aldi honetan zehar modu puntualean edo metatuan gertatu diren hamabost egun natural baino gehiagoko absentsia justifikatuetan. Kasu horretan, interesdunak osatu egin beharko du ezarritako epe osoa.

Izendatzen diren hautagaiak praktiketako funtzionario izendatuko dira, eta eskubidea izango dute udal langileen ordainsariak arautzen dituen erabakian ezarritako ordainsariak jasotzeko; era berean, alta emango zaie funtzionarioei dagokien Gizarte Segurantzako araubidean.

Egoera horretan iraungo dute izendapen-ebazpenean adierazitako egunetik hasi eta lanpostua jabetzan hartu arte, edo praktikaldian deskalifikatu arte.

Hautagaia gai edo ez gai kalifikatuko da, eta beharrezkoa izango da gai kalifikazioa lortzea hautaketa-prozedurako fase hau gainditzeko.

Deialdiko plazako eginkizunak eta zereginak behar bezala betetzeko eskatzen diren trebeziak eta gaitasunak ebaluatuko dira praktikaldian, bai ezaguera teknikoaren aplikazioaren ikuspegitik, bai lan-ahalmenaren, erantzukizunaren eta ekimenearen eta lantaldeetan jarduteko eta barruko eta kanpoko harremanetarako gaitasunen ikuspegitik.

Praktikaldia amaituta, saileko zuzendariak hautagai bakoitzaren ahalmenari eta baldintzei buruzko txosten bat egingo du eta bere ustez behar den gaitasun-maila lortu duen ala ez adieraziko du. Txosten hori hautaketa-prozesuko epaimahai kalifikatzaileari bidaliko zaio, eta hark, txostenok azterturik, praktiketako fasea gainditu duten ala ez erabakiko du. Hori egin ondoren, fasea gainditu duten hautagaiak izendatzeko proposamena egingo dio alkate-udalburuari.

Hautagaien izendapena praktikaldiko edozein unetan utzi daiteke bertan behera, betiere hautagaiak gaitasun edo aprobetxamendu egokia izan ez badu. Hala denean, saileko zuzendariak proposamena egingo dio hautaketa-prozesuko epaimahai kalifikatzaileari eta hark, proposamena aztertuta, izendapena bertan behera utzi ala ez erabakiko du; hori egin ondoren, erabakitakoaren proposamena egingo dio alkate udalburuari.

**Hamargarrena. — Behin betiko izendapena**

Behin betiko kalifikazioa eta hautagaien lehentasun-ordena ateratzeko, oposizio-faseko puntuazioari lehiaketako puntuazioa gehituko zaio; hala ere, izendatzeko ezinbestekoa izango da praktikaldian gaitasun-adierazpena lortzea.

Izendapena interesdunei jakinaraziko zaie, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udal-terreko iragarki-taulan eta udalaren webgunean argitaratuko da: <https://ope.bilbao.eus>.

Hamaikagarrena. — Lanpostuaz jabetzea

Udaleko organo eskudunak proposamena onartu ondoren, izendatutako pertsonak lanpostuaz jabetuko dira eta Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartu zuen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 62.1.c) artikuluan eskatzen den baldintza bete behar dute; horretarako, hogeita hamar eguneko epea daukate, izendapena jakinarazi zaien egunaren biharamunetik aurrera.

Ezarritako epearen barruan eta justifikatzeko moduko arrazoirik gabe lanpostuaz jabetzen ez direnek karguari uko egin diotela ulertuko da, eta euren eskubide guztiak galduko dituzte. Horrelakoetan, alkate-udalburuak proposatuko du, betiere oposizioari ariketak gaitasuna, oposizio- eta lehiaketa-faseetako puntuak batuta baloraziorik onenak lortzen dituzten hautagaiak izendatzea, kargua uztearen ondorioz deitutako lanpostu kopuruan tokia izanik. Hori guztiori oinarri hauetako zazpigarrenean adierazitakoarekin bat etorrira.

Karrerako funtzionario izendatutako pertsonen, lanpostuaz jabetzen diren unean, lanpostua erreserbatzeko eskubiderik gabeko eszedentzia eskatzen dute, hutsik uzten dituzten plaza adjudikatu ahalko dira. Horretarako, epaimahai kalifikatzaileak egiten duen karrerako funtzionarioen izendapen-proposamen osagarria erabiliko da.

Hamabigarrena. — Aurka egiteko bideak

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluen eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1988 Legearen 46. artikuluen arabera, oinarri hauen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal zaio hilabeteko epean Bilboko Gobernu Batzordeari, edo zuzenean aurka egin administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean, hilabete biko epean. Epe hori, kasu bietan ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean hasiko da.

**I. ERANSKINA****GAI-ZERREDA****1. ZATIA**

1. gaia: Espainiako Konstituzioa, 1978koa. Printzipio nagusiak. Funtsezko eskubideak eta betebeharrak.

2. gaia: Udalerria. Biztanle-kopuru handiko udalerrietako udal antolaketa (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena: X. titulua).

3. gaia: Bilboko Udalaren antolaketa. Araudi organikoak.

4. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa. Administrazio-prozedura erkidegoaren faseak: hasiera, antolamendua, instrukzioa eta amaiera.

5. gaia: 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa. Funtzionarioen eginbeharrak eta eskubideak. Ordainsariak. Diziiplina-araubidea.

6. gaia: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizkoa.

2. ZATIA

7. gaia: Bilboko Uriaren historia.

8. gaia: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa. Oinarrizko kontzeptuak. Eskubideak eta betekizunak. Arriskuen prebentzioa Bilboko Udalean. Menpekoen postuaren lan-arriskuak.

9. gaia: Intzidentziak lantokian. Atazak. Aretoak eta batzarrak prestatzea, anomaliak eta intzidentziak.

10. gaia: Oinarrizko ofimatika-makinen erabilera. Dokumentuen erreprografia: fotokopiagailua, plastifikagailua, eskanerra, inprimagailua, koadernagailua eta grapagailua. Fotokopiagailuaren erabilera. Ohiko anomaliak. Enkargua. Segurtasuneko, lan-osasuneko eta ingurumen-babeseko arauak.

**MENPEKOENTZAKO DEIALDIA**

Bilboko Udalak hautaketa-probak deitzen ditu, Administrazio Orokorrean zerbitzueta-ko langile gisa lan egiteko.

Hauek dira lanpostuak:

— Menpekkoa.

DEIALDIAREN OINARRIAK

Deialdiaren oinarriak hautaketa-proba hauetan parte hartzeko bete behar dituzun arau eta betekizun guztiak dira.

Deialdiaren oinarrietan aurkituko dituzun atalak hauek dira:

1. Lanpostua.
2. Titulazioa.
3. Betekizunak.
4. Lanpostuaren funtzioak.
5. Hautaketa-probak.
6. Hautaketa-proben puntuazioa.
7. Lan-poltsa.

Oinarrien ostean, atal gehiago aurkituko dituzu, eranskinak izenekoak.

1. eranskina: Gai-zerrendaren 1. zatia eta 2. zatia.

1. Lanpostua

Bilboko Udalak 4 lanpostu eskaintzen ditu, Menpeko langile izateko.

Lanpostu hauek adimen-desgaitasuna duten pertsonentzat eta lanpostu hauetako bat eskuratzeko baldintzak betetzen dituen edozein herritarrentzat dira.

Kontratatu beharreko pertsona aukeratzeko, hautaketa-proba bat egingo da.

Hautaketa-probetan eta lehiaketan notarik onena ateratzen duten 4 pertsonen lanpostu bat eskuratzeko dute.

Lanpostu hau eskuratzeko:

- Euskara merezimendua izango da.
- Komenigarria da, baina ez derrigorrezkoa.
- Ez da nahitaezkoa euskara-titulazioa aurkeztea.

2. Titulazioa

Hautaketa-probetara aurkezteko, ez da beharrezkoa eskolako edo hezkuntzako tituluak edukitzea. Hala adierazten dute Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen urriaren 30eko 5/2015 Errege Lege Dekretuaren seigarren xedapen gehigarriak eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 43. artikulua.

3. Betekizunak

Betekizunak dira hautaketa-probetan parte hartzeko bete behar dituzun baldintzak.

Bi betekizun daude:

- Ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasun-gradua onartua izatea,
- Adimen-desgaitasuneko diagnostikoa eta/edo
- Mugako adimena izatea.

4. Lanpostuen funtzioak

Menpeko postuaren funtzio orokorrak hauek dira:

- Zentroaren oinarriko mantentze eta kontserbatze lanak egitea.
- Zentroko esparruen higiene-kondizioak bermatzea.



- Dokumentazioa eta gutunak biltzea, sailkatzea, eramatea eta banatzea.
- Fotokopiak egitea, taldeetan, ikastaroetan eta abarrekoetan materiala banatzea, zentroko aretoak jarduerak egiteko prestatzea, eta kolektiboetako bulegoak erakustea.
- Bulegoko materiala bildu eta banatzea eta eraikinetik kanpo enkarguak egitea.
- Zentroko arduradunari zenbait eginkizun egiten laguntzea.


Hauek dira zeregin nagusiak:




Publikoak eskatzen duen informazioa ematea.
Bulegoak edo pertsonak non dauden adieraztea.




Zenbait dokumentu jasotzea eta banatzea: espedienteak, gutunak, inprimakiak, zerrendak eta abar.



Bulegoko materialeko kutxak edo paketeak eta bestelako objektuak lekuz aldatzea.



Eraikinak eta bulegoak zaintzea.
Egiaztatzea bulegoak eta makinak egoera onean daudela.
Beharrezkoa denean laguntza teknikoa eskatzea.




Eskatzen dizkizuten fotokopiatze, inprimaketa, eskaneatze eta koadernaketa lanak egitea.



Zure lanpostuaren eta kualifikazioaren arabera eskatzen dizkizuten lanak egitea.



Mota guztietako objektuak eta paketeak garraiatzea, baldin eta euren tamainagatik ez badagozkie beste lanpostu batzuei.



Dokumentuak eraikineko birrintze-makinara eramatea, bertan suntsitzeko.



Fotokopiagailuetan paper, toner eta abarreko nahikoak daudela ziurtatzea.
Beharrezkoa denean, tonerra eta papera sartzea.

5. Hautaketa-probak

Hautaketa-proba hauek menpeko plazarako egiten dira.

Hautaketa-probetan 3 ariketa egin behar dituzu:

**1. ariketa derrigorrezkoa eta baztertzaila da**

Lehenengo azterketa hori deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean) argitaratzen denean egingo da.

Deialdia argitaratzen denetik, gutxienez 6 hilabete epean eta gehienez 10 hilabete epean egin beharko da lehenengo azterketa.

Ordu eta erdi (90 minutu) dituzu ariketa hori egiteko.

30 galderari erantzun behar diezu.

Galdera bakoitzak 3 erantzun ditu aukeran, eta bakarra da zuzena.

Ez dizute punturik deskontatuko zuzenak ez diren edo erantzuten ez dituzun galderengatik.

Bigarren ariketa egiteko, lehenengoa gainditu behar duzu.

Epaimahaiak lehenengo ariketako notak argitaratuko ditu eta, gero, bigarren ariketa nola egin azalduko du.

Epaimahaia pertsona talde bat da, hautaketa-probetako ariketak zuzentzen dituen.


Ikasi behar dituzun gaiak 1. eranskinean daude: gai-zerrendako 1. zatia.

2. ariketa derrigorrezkoa eta praktikoa da

Lehenengo ariketa gainditzen duten pertsonak bigarren ariketa egingo dute.

Ariketa hau praktikoa izango da.

1. Hauxe da praktika bat:



Menpeko posturako: fotokopiagailuak, plastifikagailuak, koadernagailuak, eskanerra eta inprimagailua erabiltzea.

Makina hauek erabiliko dira:

- Fotokopiagailua, eskanerra eta inprimagailua: TOSHIBA e-studio 2505 AC.
- Grapagailua: CASCO M3.
- Koadernagailua: NEODAL I-BIND20 (14 mm-ko txirula).

Ikasi behar dituzun gaiak 1. eranskinean daude: gai-zerrendako 2. zatia.

Bigarren azterketa hau egin aurretik, jarraibide-orri bat argitaratuko da, sasoiz.

Lanpostuen funtzioak dokumentu honen 4. atalean azaltzen dira.

3. ariketa (euskara)

Ariketa honetan, zeure lanpostuko lanak egiteko daukazun euskara-maila frogatuko duzu.

Ariketa hau borondatezkoa eta merezimenduzkoa da. Hau da, behar den euskara maila baduzu, 1,50 puntu gehiago eskuratuko dituzu.

Ariketa hau ez duzu egin beharko baldin eta tituluren bat edo hizkuntza-eskakizunen bat baduzu edo Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan ageri bazara.

Bilboko Udalari baimena eman behar badiozu Erregistroa begiratu dezan.

**6. Hautaketa-proben puntuazioa***1. ariketa*

Galdera bakoitzak 0,40 puntu balio du.

5 puntu edo gehiago duten pertsona guztiek gaindituko dute.

Erantzun guztiak ondo erantzuten badituzu, 10 puntu jasoko dituzu.

Ariketa hau gainditzeko, 5 puntu edo gehiago beharko dituzu.

2. ariketa

Praktika guztiak ondo egiten badituzu, 10 puntu eskuratuko dituzu.

Ariketa hau gainditzeko, 5 puntu behar dituzu.

3. ariketa

Lanpostuaren funtzioak euskaraz betetzeko behar den euskara-maila badaukazu, 1,50 puntu gehiago jasoko dituzu.

1. eta 2. ariketak euskaraz egiten eta gainditzeko badituzu, ez duzu 3. ariketa egin beharko.

Azken puntuazioa

Zure azken puntuazioa hautaketa-probetan egin dituzun ariketa guztietako puntuazioen batura da.

7. Lan-poltsa

Hautaketa-proba horiek amaitu ostean, lan-poltsa bat sortuko da, beharrezkoa denean menpekoen postuak aldi batez betetzeko.

Lan-poltsa pertsonen zerrenda bat da. Probetan atera duten puntuazioaren arabera, Administrazioak denboraldi jakin batean lanpostu bat betetzeko deitu ahal die.

Lan-poltsa horrek Bilboko Udalean dauden gainerako lan-poltsen moduan funtzionatuko du.

**1. ERANSKINA****GAI-ZERREDA****1. ZATIA**

1. gaia: Espainiako 1978ko Konstituzioa: printzipio nagusiak. Funtsezko eskubideak eta betebeharrak.

2. gaia: Udalerria. Biztanle-kopuru handiko udalerrietako udal antolaketa (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen: X. titulua).

3. gaia: Bilboko Udalaren antolaketa. Araudi organikoak.

4. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa. Administrazio-prozedura erkidegoaren faseak: hasiera, antolamendua, instrukzioa eta amaiera.

5. gaia: 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa. Funtzionarioen eginbeharrak eta eskubideak. Ordainsariak. Diziiplina-araubidea.

6. gaia: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizkoa.

2. ZATIA

7. gaia: Bilboko Uriaren historia.

8. gaia: Laneko arriskuen prebentzioa. Oinarrizko kontzeptuak. Eskubideak eta betekezunak. Arriskuen prebentzioa Bilboko Udalean. Menpekoen postuaren lan-arriskuak.

9. gaia: Intzidentziak lantokian. Atazak. Aretoak eta batzarrak prestatzea, anomaliak eta intzidentziak.

10. gaia: Oinarrizko ofimatika-makinen erabilera. Dokumentuen erreprografia: fotokopiagailua, plastifikagailua, eskanerra, inprimagailua, koadernagailua eta grapagailua. Fotokopiagailuaren erabilera. Ohiko anomaliak. Enkargua. Segurtasuneko, lan-osasuneko eta ingurumen-babeseko arauak.



(Eskabidea bete aurretik, irakurri ondo jarraibideak)

ONARPEN-ESKAERA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

ADIMEN-DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN DEIALDIA, MENPEKOEN LANPOSTURAKO

Pertsonaren datuak

Izena	Lehen abizena	Bigarren abizena
NAN	Jaiotze-data	Sexua
Helbidea (kalea, zenbakia...)	Posta-kodea	Udalerria
		Probintzia
1. telefonoa	2. telefonoa	Posta elektronikoa
Zelako egokitzapena behar duzu probak egiteko?		

Betekizunak

	Ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila daukat onartuta.
	Adimen-desgaitasuneko diagnostikoa eta/edo mugako adimena daukat.
	Oinarri espezifikoetan eta oinarri orokorretan ezarritako gainerako betekizunak betetzen ditut.

Lekua		Data		Sinadura	
-------	--	------	--	----------	--

Zelan bete behar da eskabidea?

— Idatzi datu guztiak:

- Letra handiz (boligrafoz edo makinaz)
- Letra argiz, dokumentu guztietan datu guztiak irakurri ahal izateko moduan.
- Ezabaketarik edo zuzenketa-rik gabe.

— Eskabidea <https://ope.bilbao.eus> web orrian aurkez dezakezu. Paperean ere aurkez dezakezu.

— Ez ahaztu betekizunen eta merezimenduen atalak betetzeaz.

— Ez ahaztu azterketa egiteko tasak ordaintzeaz.

— Nahi baduzu, azterketa euskaraz egin dezakezu. Eskabidean adierazi beharko duzu.

UDALA
AYUNTAMIENTO

Onarpen eskabidea / Solicitud de admisión

1.- Deialdia / Convocatoria

Deialdiaren izena / Nombre Convocatoria: SUBALTERNO/A DISCAPACIDAD INTELECTUAL

Sartzeko sistemak / Sistemas de acceso: CONCURSO-OPOSICION

Txanda / Turno: RESTRINGIDO A PERSONAS CON DISCAPACIDAD

2.- Norberaren datuak / Datos personales

Lehenengo abizena / Primer apellido		Bigarren abizena / Segundo apellido		Izena / Nombre	
NAN / AIZ / DNI / NIE:	Naziotasuna / Nacionalidad	Jaioteguna / Fecha de Nacimiento:		Sexua / Sexo E. / M. ☐ G. / H. ☐	
Telefono finkoa / Teléfono fijo		Telefono mugikorra / Teléfono móvil		Posta elektronikoa / Correo electrónico	

3.- Jakinarazpenetarako helbidea / Domicilio a efectos de notificaciones

Helbidea / Dirección		Ataria Portal	Eskailera Escalera	Solairua Piso	Eskua Mano	Atea Puerta
PK / CP:	Herria / Localidad	Probintzia / Provincia		Herrialdea / País		

4.- Euskara / Euskera

☐	Euskararen 1. HE edo goragokoa egiaztatu dut. / Poseo la acreditación del PL1 de euskera o superior.
☐	Euskarako 1.HEeko azterketa egin nahi dut. / Deseo hacer el examen del PL1 de euskera
☐	Ez dut egiaztatu euskararen 1. HE, eta ez dut azterketa egin nahi. / No tengo Acreditado el PL1 de euskera y no deseo hacer el examen.

5.- Aukera ezazu oposizioaldia egiteko nahi duzun hizkuntza / Seleccione el idioma en el que desea hacer la fase de oposición.

Euskara / Euskera ☐	Gaztelania / Castellano ☐
--	--

6.- Betebeharrak / Requisitos

☐	Ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila daukat onartuta. / Poseo un grado de discapacidad reconocido igual o superior al 33%.
☐	Adimen-desgaitasuneko diagnostikoa eta/edo mugako adimena daukat. / Poseo diagnóstico de discapacidad intelectual y/o capacidad intelectual límite.
☐	Oinarri espezifikoeetan eta oinarri orokorretan ezarritako gainerako betekizunak betetzen ditut. Cumpló el resto de requisitos establecidos en las bases generales y específicas.

Tasak deialdiaren berariazko oinarrietan xedatutakoaren arabera ordainduko dira.

El abono de las tasas se hará de conformidad con lo dispuesto en las bases específicas de la convocatoria.

UDALA
AYUNTAMIENTO**7.- Merituak / Méritos**

Menpekoen plazan Antzinasuna daukat Administrazio Publikoan. /
Poseo antigüedad en plaza de **subalterno/a** en la Administración pública.

8.- Kontratazio zerrendetan sartzea / Ingreso en listas o bolsas de contratación

	Bilboko Udalean indarrean dauden Oinarri Orokorren arabera, baimena ematen dut nire datuak Administrazio Publikoaren beste Erakunde batzuei lagatzeko, lan eskaintzak jasotze aldera. / Autorizo la cesión, a efectos de recibir ofertas de empleo, de mis datos personales a otras Entidades de las Administraciones Públicas, al amparo de lo establecido en las vigentes Bases Generales del Ayuntamiento de Bilbao.
	EZ NAGO AURKA Bilboko Udalak, bide telematikoen bidez, nire eskabidean aipatutako nortasun, ezgaitasun, titulazio akademiko, hizkuntza eskakizun, IT txartel, gidabaimen eta Administrazio Publikoetan egindako zerbitzuak kontsulta eta egiaztatu ditzan, bere izapidetze administrazioarako, hauek eskuragarri dauden heinean, eta JAKINAREN GAINEAN NAGO. Aurka eginez gero, dagozkion agiriak erantsi beharko dira, eskatzen diren unean. / QUEDO INFORMADO Y NO ME OPONGO a que el Ayuntamiento de Bilbao consulte y verifique por medios telemáticos los datos de identidad, discapacidad, títulos académicos, perfiles lingüísticos, IT Txartelas, permisos de conducción y servicios prestados en Administraciones Públicas alegados en la solicitud para su tramitación administrativa, en la medida de la disponibilidad de los mismos. En caso de oponerse deberá aportar los documentos acreditativos correspondientes en el momento en el que sea requerido.
	Baimena ematen diot Bilboko Udalari nire helbide elektronikoa eta telefono mugikorra erabiltzeko hautaketa prozesu honetan egin ditzakeen jakinarazpenetan. Autorizo la utilización de la dirección electrónica y teléfono móvil aportados, para su utilización en las comunicaciones que el Ayuntamiento de Bilbao pueda efectuar en el transcurso del presente proceso selectivo.

Laukietan BAI ala EZ idatzi / Escriba en los recuadros SÍ ó NO:

Lege-informazioa / Información legal

Behean sinatzen duenak ESKATZEN DU hautaketa-prozesu honetan onartua izatea eta bere erantzukizunaren pean AITORTZEN DU eskabide honetan jasotako datuak egiazkoak direla, eskabidean agertzen diren jarraibideen arabera bete duela eskabidea, deialdia arautzen duten oinarri orokorretan eta oinarri berezietan ezarritako baldintzak betetzen dituela, bere osasun egoerari buruzkoak barne. Halaber, hala eskatzen zaionean, eskabidean jasotako datu guztiak agiri bidez frogatzeko konpromisoa hartzen du.

La persona abajo firmante SOLICITA su admisión en el presente proceso selectivo y DECLARA, bajo su responsabilidad, que son ciertos los datos consignados en esta solicitud, que la ha cumplimentado de conformidad con las instrucciones contenidas en la misma y que reúne las condiciones exigidas en las Bases Generales y en las Bases Específicas que rigen la convocatoria, incluidas las que se refieren a su estado de salud, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en la solicitud cuando le sean requeridos.

Jarri "X" laukitxoan / Marque con una "X" en el recuadro

ZINPEAN EDO HITZ EMANDA AITORTZEN DUT / DECLARO BAJO JURAMENTO O PROMETO

Eskaera hau sinatu baino lehen, irakur ezazu arretaz datuen babesari buruz atzealdean ezarritako informazioa.

Antes de firmar esta solicitud, lea atentamente la información sobre protección de datos recogida al reverso.

tokia / lugar

urtea / año

hilabetea / mes

eguna / día

Sinadura / Firma

BILBOKO UDALEKO ALKATE JAUN TXIT GORENA
EXCELENTÍSIMO. SR. ALCALDE DE BILBAO

UDALA
AYUNTAMIENTO**DATUEN BABESA**

Honako hau jakinarazten dizut, datuak babesteko indarrean dagoen araudian aurreikusitako ondorioetarako:

Bilboko Udaleko Kultura eta Gobernatzako Zuzendaritza da zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna (helbidea: Venezuela plaza, 2, 5. solairua, 48001 Bilbo). Bilboko Udalean, Modernizazio Sailatalaren burua da datuak babesteko ordezkaria (helbidea: Ernesto Erkoreka plaza, 1, 5. solairua, 48007 Bilbo).

Zure datuen tratamenduak helburua da aurkeztuko zaren hautaketa-prozesua egoki prestatu eta garatzea, hautaketa-prozesuaren ondorioz sor litekeen lan-poltsa eratu eta kudeatzea, zuk alegatutako tituluak eta, oro har, merezimenduak egiaztatzea eta aurkeztuko zaren plazak betetzeko behar diren betekizun guztiak dituzula egiaztatzea.

Eman dituzun datuak kontserbatuko dira aplikagarriak diren arau-xedapenek hala inposatzen duten bitartean.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren (EPOETB) legezko manu bat (55. eta 56. artikulua) betetzea da zure datuen tratamendurako legezko oinarria, tratamendu horren helburua denean egiaztatzea ea betetzen dituzun funtzio publikoan sartzeko betekizunak eta hautaketa-prozesuan hori betetzeko behar diren gainerako inguruabarrak. EPOETBn (10. art. eta hurrengoak) ezarritako botere publiko bat egikaritzea da zure datuen tratamendurako legezko oinarria, tratamendu horren helburua aurkeztu zaren hautaketa-prozesuaren ondorioz egin litekeen lan-poltsak kudeatzea denean.

Aurreko tratamenduetarako beharrezkoak diren datuak eman ezean, ezin izango duzu hautaketa-prozesuan parte hartu.

Posta elektronikoko helbideari eta telefono-zenbakiei buruzko zure datuak komunikazioak egiteko tratatzeari dagokionez, horretarako berariaz ematen duzun baimena izango da legezko oinarria. Hautaketa-prozesuan parte hartzea eta horren ondorio guztiak ez daude zure posta elektronikoko helbidearen eta zure telefono-zenbakien datuak tratatzeko baimena ematearen mende.

Zure datu pertsonalak (izen-abizenak, NANA, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza-maila) badaude sor litekeen lan-poltsetan, helburu bakar honekin laga ahal izango zaizkie beste administrazio publiko batzuei, betiere jasota badago berariaz baimena eman duzula horretarako: lan-eskaintzak egin ahal izatea legez ezarritako terminoetan.

Zeure datuetara irispide izateko, zuzentzeko, ezerezteko, aurka egiteko, mugatzeko eta transferitzeko dituzun eskubideak tratamenduaren arduradunaren aurrean egikaritu ahal izango dituzu. Eskubidea izango duzu, era berean, eskatu zaizun tratamendurako edo tratamenduetarako eman duzun baimena kentzeko, baina horrek ez dio legitimatzerik kenduko baimena kendu aurretik eginiko tratamenduari. Era berean, ezin izan badituzu zeure eskubideak egikaritu, erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu datuen babesaren gaian eskuduna den kontrol-agintaritzaren aurrean.

PROTECCIÓN DE DATOS

A los efectos previstos en la normativa vigente en materia de protección de datos, se le informa que:

El responsable del tratamiento de sus datos personales es la Dirección de Recursos Humanos del Área de Cultura y Gobernanza del Ayuntamiento de Bilbao, situada en Plaza Venezuela, nº 2, 5ª planta, 48001 Bilbao.

La Delegada de Protección de Datos del Ayuntamiento de Bilbao es la Jefatura de Subárea de Modernización, con dirección en la Plaza Ernesto Erkoreka, nº 1, 5ª planta, 48007, Bilbao.

Sus datos serán tratados con el fin de preparar y desarrollar correctamente el proceso selectivo al que usted aspira y la constitución y gestión de la bolsa de trabajo que pudiera crearse a resultas del mismo, de verificar los títulos y méritos en general alegados por usted y de acreditar que cuenta con todos los requisitos necesarios para el acceso a las plazas a las que concurre.

Los datos proporcionados se conservarán mientras así lo impongan las disposiciones normativas aplicables.

La base legal para el tratamiento de sus datos a fin de verificar los requisitos de acceso a la función pública y las circunstancias que determinen su desempeño en el proceso selectivo es el cumplimiento de un mandato legal contenido en el TREBEP (arts. 55 y 56). La base legal para el tratamiento de sus datos a fin de gestionar las posibles bolsas de trabajo resultantes del proceso selectivo al que usted aspira es el ejercicio de un poder público recogido en el TREBEP (art. 10 y siguientes).

De no facilitarse los datos necesarios para los anteriores tratamientos, no será posible la participación en el correspondiente proceso selectivo.

La base legal para el tratamiento de sus datos relativos a dirección de correo electrónico y números de teléfono para comunicaciones es su consentimiento expreso a tal efecto. La participación en el proceso selectivo y todas sus consecuencias no están supeditadas a la prestación de su consentimiento para el tratamiento de los datos relativos a su correo electrónico y sus números de teléfono.

Sus datos personales contenidos en las posibles bolsas de trabajo (nombre y apellidos, D.N.I, domicilio, teléfono de contacto y nivel de formación) serán cedidos, siempre que conste su expreso consentimiento, a otras Administraciones Públicas con la exclusiva finalidad de que les puedan ser realizadas ofertas de empleo en los términos legalmente previstos.

Usted podrá ejercer ante el responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición, limitación del tratamiento y a la portabilidad de sus datos. Asimismo, usted tiene derecho a retirar el consentimiento prestado para el o los tratamientos que así lo hayan requerido, sin que ello obste a la legitimidad del tratamiento realizado previamente a su retirada. De igual modo, usted podrá presentar una reclamación ante la Autoridad de Control en materia de Protección de Datos competente cuando no haya obtenido satisfacción en el ejercicio de sus derechos.